

**P. LAFITTE eta J. HARITSCHELHAR**  
**EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ERRET ELKARTEAN**  
**OHOREZKO BAZKIDE IZENDATUAK**

1983ko Ekainaren 25ean Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartekoek urteroko batzar nagusia izan zuten Azkoitiko Insausti jauregian eta han bertan Piarres Lafitte eta Jean Haritschelhar euskaltzain jaunak ohorezko bazkide izendatu zituzten.

Egun hortan elkartekide hilen arimen alderako meza batez hasi ziren ospakuntzak, eta eguerdiko hamabietan hasi zen akademi batzarra. Lehenik Juan Inazio Uria Gipuzkoako zuzendariaren hitzez ideki zen, "Real Sociedad Bascongada eta euskara" gaiaz. Ondorean Juan San Martin bazkidea bere euskaltzainkide Jean Haritschelhar aurkeztuaz eta honek era berean Piarres Lafitte. Bukaeran Adrian Zelaia zuzendaria mintzatu zen bazkide berriei ongietorria emanaz, eta azkenik, Pedro Migel Etxenike, Hezkuntza Kontseilaria.

Ondotik egin ziren batzar nagusia, urteko Memoriaren irakurketa, kargudun berriak hautatzea, eta bazkaria. Arratsaldean "Edeta" musikari seikoteak Wagner, Dale Miller, Schubert, Iruarrizaga eta Zapirainen obrak jo zituzten, Xabier Bello Portu jauna aurkezle zela.

**Jean Haritschelhar, J. San Martinek aurkeztua**

Adiskide: Euskaltzain sarrerako hitzaldian nere aitaponteko egin zinuen. Nork esango zuen urteak igaroaz zure aitaponteko egingo nuenik? Baina hara hemen, Joanes batetik beste Joanesera, mila urte igaro gabe, ura bere bidetik.

Nik, Axularren esanari jaramonik egin gabe nere betebeharrak gerorako utzi baldin banituen, oraingoan besteak izan dira zure izendapena gerorako utziz, aspaldi irabazia zenuen ohorezko lagun izatearena. Baina, orain, egun, geroko gerorako utzi gabe hartzen zaitugu bazkideztan eta ohore guzietan hartu ere Azkoitiko "zalduntxo" buruzagia bera sortu zen Insausti jauregi honetan. Zer ohore handiagorik Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkarreak hemen lagunkide hartzea baino? Gainera, bestalde, pozgarri zaigu herri baten izate naturalaren kontra noizbait eraiki zen muga gure anaitasunaren alde austera datorrenez, zeren gogoentzat ez baita mugarik.

Gaur egun ordea, denbora bizkor dabil eta aurkezpen honetan labur aritu beharra dut. Laburregi, zuk bezalako kultur lana burutu duen batentzat, baina egun denborak hala dira.

Ez nauzu laudorio zale, zuk hori ondo dakizu, hemengo entzuleok dakiten beza-la. Laburki bederen, bizpahiru hitz baizik ez ditut eskainiko zure emankortasunez.

Ez dakit gizonengan merituak lanen zabalkundez, sakontasunez, ekintza ugariz ala bereziz hobeto neurtzen diren, baina zuk gure kulturaren alde eman duzuna begien bistan dago. Herri baten ezagupenerako oinarrizko izan behar duten lanetan aritu zera eta, ah!, zelako lanak burutu ahal izan dituzunak. Une gogoangarri honetan zure ekintzetarik berezienak bakarrik aipatu nahi nituzke. Baina ez esan gabe zure lanik tipienetan ere ez dela erdizkakorik, tinko eta sakon pentsatuak baizik.

Kultur ekintzetan trebatu den gizon batentzat oso nekeza da politika ekintzetan aritzea. Kultur gizonek etorkizunera ere begiratzen dute eta politikoez egunean egungoari soil soilik. Baina, zu horretan ere behar den oreka gordetzen jakin zuen gizona izan zara, bestalde plaza-gizon agertu zinen eta zure sorterriko auzapezgoa (alkate-tza) anitz urtez bete zenuen eta zu izan zinen Frantziako Euskal Herrian Auzapezen Biltzarra sortzea bultzatu zuenetariko bat. Eta, kargua utzi zenuenean, segur naiz herriak ez zekiela zer galtzen zuen. Guk ordea ondo dakigu zure gizontasunez. Horretan ziur gaude, beti gizonki jokatu duzunez. Ez zaitugu alperrik aspaldiko urte hauetan Euskaltzaindiko buruordezko eta bereziki batzarretako moderatzaile, eta erakundearen barnean gabiltzanok bakarrik dakigu zure kontseiluak zein baliagarriak izan ditugun egiturazko euskarrietan.

Baionako Euskal Museoaren zuzendaritza daramazu, ondasun gordetzailerik eta kultur ekintzetara idekirik zintzo, eta bestetik Bordeleko Unibertsitatean erakasle.

Guziok eskuetan hain beharrezko genuen Philippe Veyrin-en *Les Basques* liburuak 1947tik zenbait argitalpen ezagutu zituen, baina zuk eman zenion osagarritzko hobekuntza eta egunera jartzeko beharrezko zuena, 1975. urtean berriz argitaratzean. Baina, liburu horrek Frantziako Euskal Herria soilik hartzen zuen eta, zure iduriz, lan sakonago baten premia genuen Euskal Herriaren historia eta kultura liburu batean behar bezalako jaso ahal izateko. Horregatik, hamalau lagun bildu zenituen zurekin, hamalau pertsona bakoitza gai bati espezializatua eta behar zen egiturari plangintza markatu ondorean jaso dugu zure buruzagitza horren frutu umeldua. Hil honen 15an aurkeztua izan zen lan hori: *Etre basque* liburu gotorra euskaldunen nortasunez munduan jakin dezaten zer garen eta gure ondoko belaunaldiak arbasoengandiko kultura hobeto ezagutu dezaten.

Ez da guti zuk, zein eskaraz zein erdaraz, euskal kulturaz idatzia, baina asko idazteaz baino gehiago arduratu zera interesgarrienak burutzen; premiazko hutsu-neak betetzea hartu bai zenuen helburu. Horretarakotz, doktor gradua lortu zenuen auskal poeta hunkigarri baten bizitza eta lanak ikertuz. Hori dugu zure frutu eman-korretan obrarik nagusienetakoa: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun* (1969) eta *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* (1969-1970). Orduan hartu zenituen goi mailak, ondorenez zure maisutzapean suspertu zenuen Bordeleko euskal katedra, Euskal Herriko seme askorentzat beren hizkuntza eta kulturaren jakintzaz bide berriak urratuz. Bai, eta horri esker, zuhaitzetik ondo berriak sortu dira eta beren fruituetarik zerbait ikusi dugu Piarres Lafitte jaunaren omenezko *Iker* - 2 liburuan eta horregatik zion maisu zaharrak: "Gora gazteak!". Horregatik, oso gaitza da zuregandiko emaitza neurtzea. Baina bai esan genezake, lasai esan ere, Euskal Herriak Ilustrazioko azkoitiar "zalduntxo" haiek hartu zuten iker mailaren gradua berriz lortzeko hori dugula biderik ziurrena eta egokiena. Beraz, ohore zuri eta zu egun laguntzat hartzen zaituen Elkarteari.

**Piarres Lafitte, J. Haritschelharrek aurkeztua**

Haritschelharrek eskerrak emanaz agurtu zituen han elkaturik agertzen ziren agintari eta bazkideak. Goraipatu zuen Elkartearen sortzaile ziren Peñafloz kondea eta bere laguntzaile haien lana, eta bat bateko hitzaldiz agertu zuen Lafitte jaunaren pertsonalitatea, jakituria eta langiletasuna.

Lehenago Lafitte kalonje jaunaren omenez erabili zituen hitzak errepikatu zituen, **Euskera** agerkarian argitaratu zirenak. Ikus XXIII. zenbakiko 189-193 orrialdeak (1978) eta XXVIII. zenbakiko 375-379 (1983).

Ohorearen merezimenduz galdetzen zuen berriz ere: “izan dea sekulan, gure Euskal Herri maitean, zuk bezenbat egin duenik euskararen alde?... egin dituzun lanen tituluek hiruzpalau orrialde betetzen dituzte Jon Bilbaok agertarazi duen bibliografian.”

Oroitarazi zituen Lhanderen hiztegia burutzeko egin zuen lan handia, zeren nork daki hiztegi horretan frango guti ari izan zela aita Lhande eta anitz egin zutela Aranart eta Lafittek. Ondorean frantses euskara deitu hiztegi bat A. Tournier-en laguntzaz. Ezin ahanzi *Grammaire basque*, non jorratzen dituen lapurtar baxenabar euskalkien gramatikak, ikasle, erakasle eta idazleentzat hain beharrezko dena.

Hiztegi eta gramatika egilez aparte literatura ere landu du, autore zaharrak berriz bizi araziz gainera. Hala eman ditu Adema eta Barbier, Lacombe eta Lande-rette, Aita Blaise Babaki, Julien Heguy apezka, Gasteluzar, Ohienart bere “Art poetique” delakoarekin, Manex Etxamendi, Etxepare, Hiriart-Urruty, Dibarrart, Saint Pierre, Oxobi, Salvat Monho, Lassalle, Arotzarena eta abarren berriak. Bestalde, gure ondasunezko kanta zaharren hedakunde lana *Kantuz*, *Errepikan* edo *Kantu*, *Kanta Kantore* liburuekin Euskal Herriko etxe guzietan sartuz, *Herria* asterokoaren sortzaile eta anitz urtez zuzendari izana.

Duela denbora guti P. Lafitte jaunari egin zaion omenaldiak erakutsi duela Euskal Herriko eta atzerriko euskalari jakitunen oihartzuna, *Iker* - 2 osatzen duen liburuaren bidez: “Euskaltzaindiaren deiari erantzun diotenak 59 dira. Eta beharbada gehiago izanen ziren ez baginu epe labur bat ezarri. Orotarat 60 artikulua eta 923 orrialdeko liburu gotor bat. Bazena zuretzat eskaintza hoberik? Ez dut uste. Eta berriz oixtian aipatuari noa. Makila bat edo beste eskaintza bat egiten zaiolarik norbaiti, eskaintzen zaio ofiziale batek eginikako lana —amodiozko lana dudarik gabe— bainan dirutan eresia”.

“Liburu hunekin aldiz, idazle bakotzak (eta errepikatzen dut 59 direla) eskaintzen dautzu bere buruzko lana, egiten dituen ikerketen fruitua, oren luzeak eta asko buru hauste pasatu dituela artikulua mamitsu baten lantzeko.”

Oroitarazten berriz ere eskaini zitzaion *Iker* - 2 omenezko liburua, honela adieraziz: “Erran dudan bezala zure omenaldirako liburuak 923 orrialde dauzka, erakusten baitauzku zertan diren ez bakarrik Euskal Herrian bainan mundu guzian euskal ikerketak.”

Oroitaraziko du baita ere Piarres Lafitte jauna ezagutu zuen eguneko gertakari hura, **Euskera**-ren bigarren aldiko XXIII. tomoaren (1978) 193. orrialdean kontatu zuena. Erret Elkartea honek ikus zezan zer nolako gizonari egiten zion ohorea. Bukarera honako hau aitortuz: “Zor dautzut, jauna, dudan euskararen amodioa, hitz batez zor dautzut ene euskaltasuna. Hortakotz bihotzaren zolatik: Milesker jauna!”